

◆ **Ander Vilariño** ◆ Formula autoen gidaria

«1 Formulara iristea ez da utopia»

Ander Vilariño 17 urte ditu eta, beraz, ez dauka autoa gidatzeko baimenik. Hala ere, bizi guztia lehiaketako autoak gidatzen ematen du eta gaur egun Renault formularen lehiatzen da Frantziako zirkuituetan. Martxoaren 31n istripua izan zuen entrenatzen ari zela eta tibia eta peronea hautsi zituen. Kolpe gogorra izan da berarentzat, baina benetan lur jota utzi duena bere taldekide baten heriotza izan da, Le Manseko 24 Orduetarako entrenatzen ari zela.

ANDER ILARIÑOAREN logelan sartuz gero, berehala nabaritzen da motor giroa: dominak, sariak, argazkiak... Gelako horma batean eta atean zintzilik, berri, bere gidari kuttunaren, Ayrton Sennaren, bi irudi. Anderren egoera ez da batere samurra, baina bere taldeak Bartzelonako 1 Formulako sari nagusia ikustera gonbidatu du eta horrek gozatu egin dio, pixka bat behintzat, eguna.

■ **Aita gidaria izanda, ez da batere arraroa zeu ere mundu horretan sartzea.**

Egia esan, amaren sabelean nengoenetik bizi nuen lasterketen eta autoen mundua. Ama haurdun zegoela lasterketetara joaten zen eta ni neu ere oso txikia nintzelarik hasi nintzen aita ikustera joaten. Betidanik mugitu izan nahiz motorraren munduan eta zaletasuna oso gaztetandik datorkit.

■ **Noiz hasi zinen gidatzen?**

Lehenengo aldiz lau urterekin gidatu nuen. Aitaren lasterketa bat ikustera joan ginenean eta zirkuitu nagusiaren ondoan beste bat zegoen kart-entzat. Kart bat hartu eta orduan bizi



Ander Vilariño ekainaren bukaera aldean edo maiatzaren hasieran hasiko da berriro lehiatzen.

JAGOBA MANTEROLA

izan nuen lehenengo abiadura sentazioa. Oso oroitzapen polita dut.

Aurrerago aitak kart txiki bat erosi zidan eta etxe inguruko maldetan ibiltzen nintzen gora eta behera. Hasieran jolas bat zen, denborapasa, baina benetan gustatzen zitzaidan eta serioago hartu nuen autoen eta gidatzearen kontua. Hamar urterekin kadete mailako Euskal Herriko Kart Txapelketa korritu nuen eta lehenengo euskal herritarra izan

nintzen bertan. Hori ikusita, aita ilusionatzen hasi zen.

Hala ere, bera ezin zen nigan zentratu, txapelketan murgildua baitzegoen, eta nik gidatzen ikasten jarraitu nuen. Maila txikiak utzi eta aurrerago maila nagusira pasatu nintzen, beti ere ikasten jarraitzeko asmoz. 1994an Kataluniako kart txapelketan nahiko emaitza onak lortu nituen eta hurrengo urtean Euskal Herriko txapelketan izan nintzen.

Garai hartan Kataluniara joan

nintzen probatzeko, Katalunian askoz ere maila handiagoa baitzegoen eta Europa edo Munduko txapelketa batera joateko aukera gehiago baintuen Katalunian korrituz gero.

■ **Noiz pasatu zinen kart-etatik formula autoetara?**

Kart-etan oso emaitza onak lortu nituen, baina aitak esan zidan ea zergatik ez genuen kart-en esperientzia ikasketa prozesu huts moduan hartzen. Kart-etan arrakasta lortzeko sekulako diru

pila behar da eta garai hartan ez neukan beharrezko baliabiderik. Beraz, gure asmoa zen kart-etan gidatzen ikastea eta gero formula mailara pasatzea.




Jauzia 1996an eman nuen. Elf etxeak selekzio bat egin zuen Katalunian eta aukeratu egin ninduten. Elf-ek mundu osoan aukeratzeko dituzten gidariak eta nirekin batera frantziarrak, japoniarrak eta alemaniarrak zeuden taldean. Elf taldea motorreko Ajax moduko da, gidariaren benetako

M MUGARRI

Araba etorbidea, z/g Postakutxatila 161 ☎ 797564-790754-44 - Faxa: 79 62 54 ARRASATE



1.336.000 pta.tik hasita
M. Z. + bez barne



2.443.000 pta.tik hasita
M. Z. + bez barne